Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20:45 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2021eko martxoaren 15ean, Udala Bildu da bilkura arrunta egiteko. Bertaratu diren zinegotziak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran, Ana Azanza Burusco eta Mikel Gaztelu Alonso, bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil, izan da eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

## **1.- 2020ko ABENDUAREN 18ko eta 2021eko OTSAILAREN 18ko BILKUREN AKTEN ONESPENA**

Udalbatzak erabaki du, aldeko lau botoz eta Gaztelu zinegotziaren abstentzioz, bilkuran parte hartu ez zuelako, 2020ko abenduaren 18ko bilkuraren akta onartzea, eta aldeko hiru botoz eta Gaztelu eta Oyarbide zinegotzien abstentzioz, bilkuran ez baitzuten parte hartu, 2021eko otsailaren 18ko bilkuraren akta onartzea.

Carlos Leache Arreseren aldeko herri-lurren urteko banaketari buruzko abenduaren 18ko bilkuraren 6. puntuari dagokionez, Juandeaburre zinegotziak adierazi du akats bat dagoela; izan ere, abeltzainekin egindako azken bileran lurren banaketaren hasierako akordioa aldatzea eta 2022an amaitzea erabaki zen, eta ez 2023an, aktan jasotzen den bezala. Hortaz, abenduaren 18ko bilkuraren akta, aldaketa hori barne, onartzea erabaki da.

## **2.- 2020ko ABENDUAREN 16tik 2021eko MARTXOAREN 11 ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Irigaray alkateak 2020ko abenduaren 16tik 2021eko martxoaren 11a eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

Nasuvinsari udaleko etxebizitzaren lehen erabilerako lizentzia emateari buruzko 16. ebazpenari dagokionez, Juandeaburre zinegotziak bere harridura adierazi du; izan ere, Nasuvinsak oraindik ez du informaziorik bidali etxebizitzaren araudiari, funtzionamenduari eta banaketari buruz, eta alkateak erantzun du obra berria dagoeneko eskrituratu eta erregistratu dela, baina deitu egingo diela gaia nola doan jakiteko.

Loperenaren baratzeko hormaren konponketaren eta ibilgailuen aparkalekuaren erregulazioaren memoria baloratuari buruzko 20. ebazpenari dagokionez, non aipatzen baita horren kostua 87.000 eurokoa dela, Gaztelu zinegotziak uste du gehiegizkoa dela, eta galdetu du zer egingo den horrenbesteko kostua izateko.

Juandeaburre zinegotziak dio diru asko dela baina konpondu beharreko zatia ere luzea dela eta oso gaizki dagoela eta edozein momentuan istripua gertatu ahal dela.

Irigaray alkate jaunak erantzun du harlangaitzezko horma berri bat eraiki nahi dela, oraingoa gaizki baitago, eta kontuan izan behar dela, lehen etxebizitza baterako eta zenbait eraikinetarako sarbide nagusia izateaz gain, Donejakue Bidearen irteera ere badela, eta, pandemiarik gabeko baldintzetan, 60.000 pertsona inguru pasatzen direla bertatik, eta gaur egun eskaintzen den irudia penagarria dela. Juandeaburre zinegotziak dioen bezala, zolatu beharreko zatia luzea dela, Loigorri eta Loperenatik Maiorlategiraino doan Done Jakue Bideko zatiaz gain, Agio eta Lopereneko atzeko aldea ere zolatuko baita.

Aldi berean azkeneko zati hori zabaldu nahi da, hau da, errepidea, egungo pareta atzera eramanez, antzinako harresien barne sartuz.

### **3.- EHIZA BARRUTIA BERRITZEA**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du dagoeneko hamar urte igaro direla barrutia azken aldiz berritu zenetik. Beraz, berriro eratu edo berritu behar da, eta Aurizko Ehiztariaren Elkarteari esleitu, Udalbatzak onartutako baldintza pleguarekin bat etorritz. Modu berean eta dokumentua bost urtez berritu behar bada ere, Ehiza Antolaketa Plana prestatu behar da eta Ehiztari Elkarteak bera arduratuko da.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

1.- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari tokiko ehiza-barruti bat eratzeko eskatzea, Aurizko udal dermio guztia hartuta.

Ehiza barrutiaren titularra Aurizko Udala izanen da, IFZ P3105800A, Udaletxe Plaza 1, PK 31640.

2.- Ehiza-barruti horren iraupen-epea hamar ehiza-denboralditarako izatea, azkena 2031/2032 denboraldia ezarritik.

3.-Aprobetxamendua Aurizko ehiztari elkarteari adjudikatuko zaio zuzenean: Aurizko udal dermioko ehiza espezie guztien aprobetxamendua adjudikatuko da.

4.- Ehiza-barrutia eratzeko lurren lagapena isilbidez egingo da (ehiza-barrutia eratzeko proiektuaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta toki erakundearen ohiko publizitate bitartekoetan argitaratuz).

5.- Ehiza barrutiaren aprobetxamendua adjudikatzeko baldintzak onartzea, erantsitako dokumentuan agertzen direnak hain zuzen ere.

6.- Nolanahi ere, guztia EAPk (Ehiza Antolatzeke Plana) esaten duenaren mende geratzen da, baita Nafarroako Gobernuak erabakitzen duenaren eta ehiza larriaren zein ehiza xehearen jarraipenaren mende ere.

#### **4.- BASO-BIDEEN ERABILERA, HERRI-LURRETARA SARTZEA ETA AUTOKARABANAK APARKATZEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.**

Irigaray alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du 90 bizilagunek autokarabanak aparkatzea eta bideak erabiltzea nolabait arautzeko eskatu ondoren, behin behineko jarduketa batzuk egin ondoren, egokia zela ordenantza bat egitea egoera hori guztia arautzeko; izan ere, araudirik ez badago, ezin da salatu, eta, beraz, ezin dira konpondu bideak behar bezala ez erabiltzeagatik eta gaizki aparkatzeagatik sortutako arazoak. Horretarako, zirriborro bat prestatu ondoren, batzarre bat deitu zen otsailaren 6an, eta 20 bat pertsona bertaratu ziren zirriborro horri buruz eztabaidatzeko, eta, emandako iritziei erreparatuta, bi gai daude erabaki beharrekoak:

Horietako bat aparkalekuaren kokapena eta eremua. Hainbat eremu proposatu ziren: Antsobi, osasun etxe ondoko berdegunea eta haur-parkearen hegoaldea; bertaratuek horiek guztiak baztertu zituzten, bertze proposamen batzuk luzatuz: Ipetea, Udalak proposatua; Kateko aparkalekua eta Labakieta, eta boto gehien lortu zuena Ipeteakoa izan zen. Alkatearen ustez Ipetea da egokiena, elkarteko aparkalekua hautatuz gero asteburuetan eta oporraldian aparkaleku hori galtzen baita eta Labakietako eremua txikia iruditzen zaio, gainera sarbidea utzi behar da abeltzaintza jarduerak hortik garatzen baitira. Gaztelu zinegotziak dio Ipeteako eremua egokitu beharko litzatekeela eta horrek kostua izango lukeela eta Etxenikeren bordaren ondoan dagoen eremua proposatzen du. Alkateak erantzun du eremu hori ere abeltzain eremua dela eta kaltetuak izan daitezkeela Etxenike eta Juandeaburre. Azanza zinegotziak hitza hartu du eta Ipeteako proposamenaren alde dagoela dio, uste baitu Goardia Zibilaren kuarteletik hurbil dagoenez garbiago eta txukunago egongo dela.

Eta erabaki beharreko beste kontua da zeintzuk diren ibilgailuentzako sarbide libreko bideak. Udalak proposamena egin du eta bertaratu guztiek ados daude.

Irigaray alkateak planteatu du, plano hartan Jauregiaroztegiako sarbidea Aetzubitik mugatuta zegoela jasota bazegoen ere, Jauregiaroztegiako iturriaren eremuraino zabaltzea proposatu duela, jende asko biltzen den gunea delako, atsedean guneetatik eta iturritik gertu dagoelako. Zinegotzi guztiek onartu dute proposamena.

Azkenik, eta Auritzen zirkulazio-zerga ordaintzen ez duten eta bideetan ibili nahi duten ibilgailuen jabeek kobratu beharreko tasari dagokionez, urtean 20 eurotan ezartzea erabaki da.

Azkenik Irigaray alkateak proposatu du udaletxearen atzeko aldean aparkatzeko bi plaza mantentzea.

Aho batez erabaki da, proposatu diren aldaketak sartuta, Baso-bideen erabilera, herri-lurretara sartzeko eta autokarabanak aparkatzea arautzen dituen Udal Ordenantza hasiera batean onartzea.

Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, onetsitako Ordenantza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliiodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak edo oharpenak egin ditzaten. Epe hori pasatuta erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordenantza behin betiko onetsi eta NAO n argitaratuko da.

#### **5.- ORDENANTZAREN ALDAKETA HASIERA BATEZ ONESTEA. 133.4. Art. ENERGIA ERAGINKORTASUNA EGUZKI PLAKAK ERABILITA.**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta azaldu du Eraikuntzako Kode Teknikoa onartu zenean energia berriztagarrien gaia kontuan hartzen hasi zirela, baina une horretan egiaztatu zela Nafarroako iparraldean, adibidez, eguzki-plakak jartzea ez zela errentagarria, izan ere, Kulturako zuzendari nagusiaren 302/2007 Ebazpena onartu zenean, Eraikingintzaren Kode Teknikoaren HE4 eta HE5 oinarriko dokumentuen aplikazio-eremutik kanpo utzi ziren zenbait herri, ia guztiak Komunitatearen iparraldekoak, Auritz tartean zela; hala ere, ez zituen debekatzen baina ez zituen jartzera behartzen ere.

Une hartan, udal-plana idatzi zuen taldeak dokumentuan islatu zuen debekatuta zegoela eraikinen estalkian eguzki-energia hartzeko plakak jartzea.

Gaur egun energia mota horren gero eta eskari gehiago dago eta bere etxebizitzan eguzki-plakak jarri nahi dituzten bizilagunak ere gero eta gehiago dira. Bertze aldetik, Orreaga eta Erroibarko Udalekin batera “Piztu” proiektua lantzen ari da eta horretan proposatu da eguzki-plakak baratza jartzea Ipetean. Horregatik guztiagatik, Udalak udal-arkitektoari agindu zion gaur egun eguzki-plakak instalatzea debekatzen duen ordenantzaren aldaketa idazteko, Aurizko Gune Historikoaren Babes Plan Bereziaren eremutik kanpo dauden eraikinetan horiek baimentzeko aukera arautzeko. Era berean, elkarrizketak izan ziren, eta txostena eskatu zitzaion Vianako Printzeari, KIO delakoaren barruan horrelako instalazioak egiteko aukerari buruz, baina ukatu egin zuten aukera hori. Hortaz, bizilagun horiek baztertuak izan ez daitezten, eguzki baratzean parte hartzeko lehentasuna izanen dute.

Proposamenaren helburua da Udal Plan Orokorreko hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren araudi partikularraren (2011/01/24), 3. Kapituluko. Baldintza estetikoak eta eraikuntzakoak, 133. Artikuluren. Antenak, instalazio bereziak, errotuluak eta publizitatea. 4. Epigrafea aldatzea, honakoa proposatuz:

- *Eraikinetako estalkietan eguzki-plakak instalatzea baimentzen da, honako muga hauekin:*

*Plakak estalkiko isurialde baten barruan txertatuko dira, inklinazio berarekin. Ezingo dira jarri terrazetan edo estalki lauetan.*

*Isurialdearen azalerarekiko okupatu beharreko azalera honako hau izango da:*

*%70 baino gutxiago estalki osoaren azalera 100 m<sup>2</sup>-koa edo gutxiagokoa denean .*



*%50 baino gutxiago estalki osoaren azalera 100 m<sup>2</sup> baino gehiago denean .*

*-Industria, nekazaritza edo abeltzaintza eraikinen kasuan estalkiaren azaleraren %50eraino handitu ahal da.*

*-Gutxienez 1 m-ko distantzia errespetatuko da teilatu-hegal, gailur, limatesa edo mehelinetatik*

*-Ezin izango da ikusi eguzki-plakez bestelako elementu osagarririk.*

*Udalak aipatutako baldintzekin bat ez datozen egoera bereziak baloratu ahal izango ditu; era berean, lurzorua mailan eguzki-plakak instalatzeko baimena eman ahal izango da. Proposamen guztiek hurbileko eraikinetan sor daitezkeen islek izan dezaketen eragina aztertu beharko dute.*

Gaztelu zinegotziak hartu du hitza, eta eguzki-plakak ez ezik eguzki-teilak ere jartzeko aukera proposatu du, teila-mota horrekin eraikitako teilatuak dituzten eraikinen argazkiak erakutsiz. Irigaray alkateak erantzun dio proposamena udal-arkitektoari helaraziko diola, ordenantza behin betiko onartu aurretik kontuan har dezan.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Udal Plan Orokorreko hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren araudi partikularraren (2011/01/24), 3. Kapituluko. Baldintza estetikoak eta eraikuntzakoak, 133. Artikuluren. Antenak, instalazio bereziak, errotuluak eta publizitatea. 4. Epigrafearen aldaketa hasiera batean onartzea.

2.- Herritarrek parte hartzeko prozesua sustatzea, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ezartzen duen bezala, eta aldaketa xehatua izapidetzea, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72. Artikuluaren arabera 77.3 artikulua dioena betetzeko.3.- Ondare historikoaren Zerbitzuari txostena eskatzea.

4.- Aldaketa jendaurrean jartzea NAO, hilabeteko epean, eta, aldaketa behin betiko onartu ondoren, dokumentua behar bezala izapidetuta bidaltzea (egindako txostenekin batera) Sustapen Departamentura, plangintza-erregistroan sar dezan.

## **6.- 2021eko HERRIKO FESTEN EGUTEGIAREN PROPOSAMENA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta 2021eko ospakizunen egutegi hau proposatu du, ez hainbeste benetan egingo denagatik, baizik eta langileentzako lan-egutegi gisa kontuan hartzeko:

*Inauteriak: BERTAN BEHERA, PANDEMIA DELA ETA*

*Udaberriko edo Gurutze Santuko Feria: BERTAN BEHERA, PANDEMIA DELA ETA San Juan bestak: Ekainaren 23a, 24a, 25a, 26a eta 27a.*

*Eskulangintza Azoka: Abuztuak 15:*

*Larrazkeneko feria. Irailaren 19a*

*Bariko San Nikolas: Abenduaren 6a.*

Herriko jaiei eta proposamenean jasotako gainerako egunei dagokienez, hasiera batean ez dira egingo, edo ez behintzat pandemia hasi arte egiten ziren moduan, eta bere garaian erabakiko da noiz eten edo nola ospatu, ahal bada.

Alkatearen proposamena eta egutegi hau onartzea erabaki da aho batez:

- 1.- *Inauteriak: BERTAN BEHERA, PANDEMIA DELA ETA*  
*Udaberriko edo Gurutze Santuko Feria: BERTAN BEHERA, PANDEMIA DELA ETA San Juan bestak: Ekainaren 23a, 24a, 25a, 26a eta 27a.*  
*Eskulangintza Azoka: Abuztuak 15:*  
*Larrazkeneko feria. Irailaren 19a*
- 2.- *Herriko jaiei eta proposamenean jasotako gainerako egunei dagokienez, hasiera batean ez dira egingo, edo ez behintzat pandemia hasi arte egiten ziren moduan. Beti ere pandemiaren eboluzioa kontuan hartuko da.*

## **7.- KANALEBURUAKO LURZATIEN SALMENTA ONARTZEA**

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, batetik, dagoen eskaria ikusita, eta, bestetik, Udalak gauzatu nahi dituen proiektuak aurrera eramateko diru-sarrerak behar dituela ikusita, Aurizko (Kanaleburua) 5. poligonoko 272. eta 273. partzelak saltzea proposatu du. Horretarako, Ana Larequi hirigintza-teknikariak egindako balioespentxosten berria hartu du oinarritzat; Ana Larequik, aldi berean, Udalak onetsitako Balorazio Txosten berria eta antzeko ezaugarriak dituzten 275 eta 277 lurzatiak saltzean izandako eskaintzak kontuan hartu ditu. Era berean, horietako handiena, eskaria egonez gero, babes ofizialeko etxebizitza izatea proposatzen da, modu bakarra ikusten baitu eraikina lehen etxebizitza izateko, eta, hutsik geratuz gero, enkante librearen prozeduraren bidez salduko litzateke Era berean, ondasunaren besterengarritasuna onartu beharko du, Nafarroako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 122. artikuluaekin bat, bai eta hura arautuko duen esleipen-prozedura eta baldintza-agiria ere ( Lege-gorputz bereko 125 eta hurrengoak)

Hortaz, erabaki da aho batez:

- 1.- 5 poligonoko 272 eta 276 lurzatiak, Kanaleburuan, saltzea, enkante bidez eta honako prezioan:

272 lurzattia	306,015 m <sup>2</sup>	<b>18.108,43 €</b>	<b>59,175 €/m<sup>2</sup></b>
273 lurzattia	336,001 m <sup>2</sup>	<b>19.896,46 €</b>	<b>59,215 €/m<sup>2</sup></b>

- 2.- Ondasunaren besterengarritasuna deklaratzeko, ondare-ondasuna delako.

- 3.- Lurzatiaren salmenta arautuko duen baldintza plegua onartzea.

Egindako salmentaren berri ematea Nafarroako Gobernuari; izan ere, bere aldetik aldeko txostenik behar ez badu ere, ondasun horren balio ekonomikoak ez duenez

gainditzen Aurizko aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hogeita bost, horren berri eman behar da.

#### **8.- BASO LANAK, 2021eko KANPAINA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza. Laguntzen deialdira aurkeztu zen 2021eko kanpainako Baso Jardueren proiektuari dagokionez, oraindik ez da emandakoaren ebazpenik jaso, baina badakigu diru-laguntza jasoko dugula. Horregatik, eta denborarik ez dagoenez, aho batez erabaki da, lana aurreratzen joateko, alkateari eskuordetzea egin beharreko obren espedientea izapidetzea eta esleitzea, eta, zenbatekoa 40.000 eurotik beherakoa bada, Erregimen Bereziko prozedura erabiltzea zenbateko txikiagoko kontratueterako ", apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan jasotakoa.

#### **9.- NPK (PAC) DEKLARATZEKO HERRI-LURREN BANAKETA**

Irigaray alkate jaunak Juandeaburre zinegotziari eman dio hitza, bera arduratu baita NPKren adierazpenetarako komunalaren azalera banatzeaz, eta jakinarazi du aurten banaketa abeltzain bakoitzak sartu duenaren arabera egin dela.

<b>IZENA</b>	<b>HA. 2020</b>	<b>HA. 2021</b>
Pedro Echeverria París	7	-
Pedro Urtasun Erro	23	26
Alfonso Mendicoa Arregui	27	35
Fermín Irigaray Gil	38,92	37
Pedro M <sup>a</sup> Etxenike Laxague	40	36
Iñaki Cilveti Lecumberri	29,08	29
Pello Echeverría Ripodas	23	29
SAT 606 NA Azanza	43	37
Dufur Inchausti Imanol y Aritza	38,5	38
José Juandeaburre Ainciburu	31,9	30
Javier Urrutia Ibañez	17,49	27
	<b>318,89</b>	<b>324</b>

Juandeaburre zinegotzi jaunak jakinarazi du emaitza beste urte batzuen antzekoa dela, baina zenbaiti zerbait aldatu zaiola.

13,77 patata-hektarea larrera itzultzeko eskatu da, baina oraindik ez da erantzun; beraz, aurten deskontatu egin behar da patataz erein dena.

Aho batez erabaki da zinegotziak aurtengo urterako proposatu eta jarraitutako irizpidea berrestea, eta datorren urtean ikusiko da zer irizpideri jarraitu.

## **10.- LEOZKO UDALERRIAN INSTALATU BEHARREKO PARKE EOLIKOEN ETA PARKE FOTOVOLTAIKOEN PROIEKTUEN AURKAKO MOZIOA**

Irigaray alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du Leozko Udalak parke eolikoaren eta parke fotovoltaikoen proiektuen aurkako mozioa igorri duela, hona hemen:

2021eko otsailaren 19an, Leozko Udalak erabaki zuen Erakunde Adierazpen hau onartzea: **Leoz/Leotz udalerrian instalatu beharreko parke eolikoaren eta parke fotovoltaikoen proiektuen aurkako mozioa**, honako hau baitio:

*"Joan den urtearen amaieran, Accionak udal honi adierazi zion garrantzi handiko bi proiektu ezarri nahi zituela, "Mairaga" eta "Barranco de Mairaga"-ko parke eolikoak (50MW bakoitza) instalatzeko hainbat udalerritan, horien artean Leoz, eta zenbait kontzejuri ere eragin zien (Iratxeta eta Leotz, besteak beste).*

*Enpresak informazioa eman ondoren, udal honek jakin zuen foru lurralde osoan proiektu eoliko eta fotovoltaiko berriak aurkeztu direla, batzuk izapidetzen ari direla eta beste batzuk jarduketak hasteko zain daudela.*

*Udal honek aitortzen du energia fosilak energia berriztagarri, jasangarri eta ez-kutsatzaileetara aldatzeko premia larria dagoela, baina trantsizio ekologikoa ezin da egin gure ingurunearen industrializazioaren kontura edo gure kasuan, Erdi Eremuaren eredu sozial eta ekonomikoa arriskuan jarritz; izan ere, planifikazio egokirik gabeko eredu zabaltzaile batek aurrez aurre talka egiten du politika guztiekin, Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentuak, aldeztu duten eta garatzen ari den, eta halaber, Udal honek aldeztu dituen politika horiekin.*

*Gainera, udal honek energia garbiak eta berriztagarriak erabiltzea defendatzen du, baina, aldi berean, ingurunearekin eta mendien erabilera onenekin bateragarriak izan daitezen, betiere ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena lortzeko helburuarekin.*

*Hala ere, plangintza inkoherente batean inbertitzaile handien interes ekonomizistak bakarrik sartuko dira jokoan, instalazio txikia eta autokontsumoa baztertuz, eta ez da kontuan hartu kaltetutako biztanleen benetako posizionamendua.*

*Egia da Nafarroak 2030 Ortzimuga Nafarroako Energia Plana (Pen 2030) duela. Plan horren 2030erako helburu estrategikoak, zehazki energia eolikoari dagokionez, honako hauek dira: autohornikuntza-ratioak hobetzea, minieolikoekin autokontsumoko proiektuak sustatzeko laguntzak eta zerga-kenkariak, eta parke eolikoak berrindartzea. Eta egia da, halaber, Plan horretan Nafarroan parke eolikoetarako Harrera Gaitasunaren Mapa ezarri dela.*

*Baina egia da mapa hori ezin dela tresna egokia izan parke eolikoak modu desordenatuan ezartzeko, gure mendiak industrialde bihurtuz. Dokumentu estrategikoa izan daiteke, baina ez du balio, nahi den bezala, poligono eolikoek ezarpen masiboari aurre egiteko; izan ere, ez dago planeamendu koherenterik eta egungo errealitate energetikora egokituta dagoen planeamendurik, eta bertan identifikatu behar dira eremukako potentzial energetikoen mailak eta eremukako poligonoak ezartzeko lehentasunak.*

*Segurtasun faltako egoera horri gehitu behar zaio Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea aurreproiektu fasean dagoela oraindik; Lurralde Antolamenduko Planek ez dutela horrelako proiektuak ezartzeko erabileren plangintza egokirik jasotzen; eta Leoz/Leotzen kasuan ere ez dagoela horrelako instalazioen erabileren eskaerei erantzun ahal izango dien hirigintza-plangintza egokirik.*

*Horrela, bada, izapidetze-sistema bat dugu aurrean, testuinguru arauemaile eta planifikatzaile eskasean oinarritua, eta ez du bermatzen ez gardentasuna, ez parte-hartzea, ez benetako ingurumen-irismena Leoz/Leotz bezalako eremu batean, non gure lurraldearen zati handi batean halako instalazioek gainezka egiten baitute.*

*Egoera horrek gogoeta eragin behar du energia-ereduaren aldaketa, kontsumo arrazionalagoa eta gure ingurunearen beharretara eta aukeretara egokituagoa sustatzeko premiazko beharrari buruz, bai eta egitura eta instalazio berriztagarrien dimentsionamendua eta kokapena planifikatzeko irizpideak, izapideak eta plangintza bateratzeko beharrari buruz ere.*

*Partaidetza-eredu batean sinesten dugu, ukitutako biztanle guztiak aintzat hartuko dituen, betiere natura-, paisaia-, historia-, kultura- eta gizarte-ondarea erabat errespetatuz. Eredu ez espekulatiboa, lurraldeek beren energiaren kudeaketan inplikazio handiagoa izango duena eta energia berriztagarriak landa-garapen iraunkorrarekin, gure ondarearen zaintzarekin eta kontserbazioarekin bateragarri egitea ahalbidetuko duena.*

*Horregatik guztiagatik, HONAKO HAU ERABAKITZEN DA AHO BATEZ:*

**Lehenengoa.-** Berariaz adieraztea Udalak ez dituela onartzen Accionak proiektatutako "Mairaga" eta "Barranco de Mairaga-ko" parke eolikoak, Erdialdeko Eremuko zenbait udalerriri eta kontzejuri eragiten dietenak, ez eta Leoz/Leotz udalerrian instalatu nahi den beste edozein parke eoliko edo fotovoltaiako ere.

**Bigarrena.-** Nafarroako Gobernuari eskatzea parke eolikoek eta fotovoltaiakoek proiektu guztien luzamendu bat, izapidetzen ari direnak edo eskatutakoak, harik eta 2030erako Nafarroako Ortzimuga Plan Energetikoa garatzeko plangintza bat egin arte, zehazkiago Nafarroan parke eolikoetarako Harrera Gaitasunaren Mapa garatzeko plangintza bat egin arte, herritar guztiek eta, bereziki, eremu kaltetuenetako gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eragileek plangintza parte-hartzailea sustatuz.

**Hirugarrena.-** Adierazpen Instituzional hau Nafarroako Gobernuaren eta Enpresen Garapeneko Departamentuari (Industria Antolamenduko, Energia Azpiegituretako eta Meatzeetako Zerbitzua) eta Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari jakinaraztea.

**Laugarrena.-** Alkatetzaren bidez, Adierazpen Instituzional honen berri ematea interesgarritzat jotzen diren udal eta kontzeju guztiei eta beste administrazio publiko batzuei, onartutako Adierazpen Instituzional honen aldeko jarrera har dezaten. "

Udal honek Adierazpen Institutuzionalaren eduki osoa babesten du eta, horregatik, honako hau **ERABAKITZEN DU**:

**LEHENENGOA:** Aurizko Udala atxikitzea Leoz/Leotz udalerrian instalatu beharreko parke eolikoaren eta parke fotovoltaikoaren proiektuen aurkako mozioa izeneko Adierazpen Institutuzionalari, Leozko Udalak 2021eko otsailaren 19ko erabakian onartutakoa.

**BIGARRENA:** Erabaki hau Leozko Udalari helaraztea, Leozko udal-mugartean instalazio horiek ezartzearen aurkako defentsa-lanetan sar dezan.

## **11.- BESTERIK**

### **Covid agerraldia Erroko zahar etxean**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du joan den urtarrilaren 13an egoitzako zuzendaritzak premiazko bilera batera deitu zuela zentroan Covid-19ren agerraldiaren eta hura kontrolatzeko hartutako neurrien berri emateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Pirinioko Batzarra**

Irigaray alkateak jakinarazi du otsailaren 8an Pirinioko Mahaia bildu zela Nafarroako Legebiltzarrean eta bertan orain arte egindako lanaren balorazioa egin zela. Jarduera dinamizatzen duten proiektuentzako laguntzen hurrengo deialdiaren berri eman zen (1.800.000 €), bai eta EH-Bilduk Estatuko aurrekontu orokorreari egindako zuzenketaren kudeaketaren berri ere (3.000.000 €).

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Pirinioetako eskolen bilera**

Irigaray alkateak jakinarazi du otsailaren 15ean Otsagabian bildu zirela bere udalerrian eskola duten udaletako ordezkariak. Bertan, ikastetxeen defizitaren gaia jorratu zen, eta, ustez, Pirinioetako Planeko neurriekin finantzatu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Bilera Nafarroako Gobernuarekin**

Irigaray alkateak jakinarazi du joan den otsailaren 23an bilera bat egin zutela Erronkarin Gobernuko presidenteari, zenbait kontseilarik eta Pirinioetako alkateek, pandemiaren ondoren ekonomia suspertzeko Gobernuaren plana azaltzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Basoen antolaketa plana, bilera**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du joan den otsailaren 25ean bilera bat egin zutela Mikel Reparaz Pirinioetako eskualdeko negoziatuen buruak, Basartera enpresako teknikariek – Basartera baso-antolamendurako plan berria gauzatzeko enpresa esleipenduna da – eta Udalbatzako kideek. Bilera horretan, dokumentu berria idazteko betearazpen-ildo nagusiak azaldu zituzten

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Bidausi Mankomunitatea**

Irigaray alkateak jakinarazi du martxoaren 4an Bidausi Mankomunitateko batzarra egin zela eta kontuak eta aurrekontuak onetsi zirela eta urteko funtzionamenduaren balantzea egin zela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Udaletxeko erregistro-inskripzioa aldatzea**

Irigaray alkateak jakinarazi du udaletxea zaharberritu ondoren eskritura berriak egin direla eta horren arabera Agoizko erregistroko inskripzioa eguneratu dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Herri lurak**

Irigaray alkateak jakinarazi du Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak igorri duela Agoizko Jabetza Erregistroak behar bezala inskribatutako eskritura publikoa. Eskritura horretan, lurzati batakunten prozesuan sortutako masa komunaren eskualdatzea formalizatzen da, herriko lurren alde.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Egur lote baten enkantea eta 2021eko aprobetxamendua markatzea**

Irigaray alkateak jakinarazi du Mendi Zuzendaritzak 2020ko aprobetxamenduaren enkanterako bidalitako egoera-orrian akats bat antzeman zela enborrak eta zura kubikatzeko, eta, beraz, hasiera batean, gerarazi egin dela enkantea, zuzendutako egoera-orria jasotzearen truke.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Kultur etxeko, elizako eta frontoiko teilatuak**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Garraldako Jose Etxegoien Juanarenari agindu diola frontoiko, elizako eta kultur etxeko teilatuen argazkiak ateratzeko, horietan egin beharreko mantentze-lanak baloratzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Garbitokirako diru-laguntza**

Irigaray alkateak jakinarazi du iaz 2.195 euroko laguntza jaso zela garbitokia zaharberritzeko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Caixabanekin enplegu babestua sortzeko egindako akordioaren barruan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Ipeteako Bidea eta Done Jakue Bideko herriko irteera**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du balioetsitako memoria bana eskatu duela Ipeteako bidea berritzeko (20.710 €) eta Donejakue Bidea herrigunetik ateratzeko (Alkatetzaren Ebazpenen 2. puntuan azaldu da hori, 87.341 €). Oraindik falta da Kanaleburuko zoladura berritzeko memoria, laster jasoko dena.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Neguko garbiketa**

Irigaray alkateak jakinarazi du urte hasierako elur-denboralean arazo bat egon zela kale-garbiketaren kudeaketan, eta arazo hori konpontzeko Aurizberriko Zibur S. L.-ren eta Orondrizko Jon Ernetaren zerbitzuak behar izan zirela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Javier Cigaren irudia**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Udalak diploma bat jaso zuela 1913an, aurreko urtean Navas de Tolosako guduaren VII. mendeurrena ospatzeko egindako ekitaldian parte hartu zuelako, eta joan den legealdira arte bilkura-aretoan zintzilikatuta egon dela. Koadroa ez dagoela zintzilikatuta eta, oraingoz bere lekuan jartzea ezinezkoa denez, idazkariaren bulegoan jartzea erabaki duela, garrantzi historikoa duelako.

Javier Ciga Echandi margolariak margotutako lamina bat da, eta Ciga Fundaziotik azaldu zioten garrantzitsua dela hura kontserbatzea, dokumentatutako ale gutxi geratzen direlako eta jatorrizkoa ez dakigulako non dagoen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ondare-batzordea**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Federazioaren batzordean parte hartuko duela Eliza Katolikoak egindako ondare-immatrikulazioak aztertu eta horiei buruzko lana egiteko

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Loizuko gizonaren aurkikuntzaren garrantzi kultural eta zientifikoa**

Irigaray alkateak jakinarazi du jasota utzi nahi duela gure historiako garrantzitsua dela Loizuko Gizonaren aurkikuntza zientifikoa, duela 11.700 urtekoa; izan ere, Aizpea Aribekoa duela 6.600 urte inguruko emakumearekin batera, eskualdean aurkitutako giza aztarnarik zaharrenak dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Auñamendi Mankomunitatea**

Juandeaburre zinegotziak jakinarazi du Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean idazkari postua hutsik gelditu zela eta probak egin ondoren Saioa Biurrarena, Aurizberrikoa, hautatua izan dela eta haren lanaldia 1/3 izanen dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

## **12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:45ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.